

ABEREEN BATZARRA



Abereak batzarrean bildu ziren, lehoi zaharra hila zelako eta lehendakari berri bat izendatu behar zutelako.

Izendatu zuten, eta honela esan zuen lehendakari berriak:

—Gure gizartea hobetzeko, igandetan lan pixka bat egingo dugu.

Abere guztiek txalotu zituzten lehendakariaren hitzak. Lehendakari berria hontz zahar bat zen, jakintsua oso.

Baina guztiek ez; apoak, zapoak, ez zuen txalorik jo. Berekoia eta alferra zen izugarri:

—Bai! Baita zera ere...! Igandean, nik, lo eta igeri!

Eta igandean denak abiatu ziren lan egitera, gizarte hobeago bat jasotzearren.

Baina apoak, zapoak, uretan, honela zioen:

—Ergel ez besteak! Ni ez noa lanera! Ura freskoa dago, eta zeinen ederra den hementxe lo hartzea...



Horrela egin zuen zenbait igandetan, hontzak berriro batzarra deitu zuen arte.

—Lagunok, denok gaude pozik egindako lanarekin, baina badago hemen gizartean bizi nahi ez duen abere bat, lagunei lagundu nahi ez dien abere bat, eta, horregatik, bota egin behar duguna, kanpora jaurti, gure gizartetik.

Marmarrean hasi ziren abere guztiak, baina apoak, zapoak, ez zuen hitzik atera.

Honela jarraitu zuen hontzak:

—Ez dut abere alfer horren izena aipatuko, baina jakin ezazue berdea dela, begi irtenak dituela eta uretan bizi dela.



Orduan bai, orduan apoak, zapoak, saltoka, honela egin zuen hitz:

—Hori, hori! Kanpora krokodiloa!

Testua: Koldo Izagirre

IPUINAREN ULERMENA

- Zergatik bildu ziren batzarrean animaliak?
 - Lehoi zaharra hila zelako.
 - Lehoia oso gaiztoa zelako.
 - Lehoiak ez zuelako agintzen jarraitu nahi.
- Zer animalia izendatu zuten lehendakari berria ? Zergatik?
 - Ipurtargia gauean lekuak argitzen zituelako.
 - Jirafa animalien artean altuena zelako.
 - Hontz zahar bat oso jakintsua zelako.
- Animaliek lehendakariaren erabakia txalotu zuten. Apoa, berriz, ez zegoen ados. Zergatik?
 - Berekoia eta alferra zelako.
 - Esku min ikaragarria zuelako
 - Ez zegoelako adi, ez zuen ezer entzun.
- Zer egiten zuen apoak igandeetan?
 - Apoak igandeetan urmaeleen igeri egiten zuen.
 - Apoak igandeetan ur freskoan etzan egiten zen.
 - Apoak igandeetan lo eta lo egiten zuen.

- Hontzak berriro batzarra egin zuen. Zergatik?
 - Udaberria zen eta festa alai bat ospatu nahi zuelako.
 - Hontza aspertuta zegoelako.
 - Apoa oso animalia alferra zela adierazi nahi zuelako.

- Igelak zein animalia bota nahi zuen taldetik?
 - Krokodiloa
 - Dordoka
 - Barrazkiloa

OSATU taula: Idatzi taula honetan aditz bakoitzaren sinonimo eta antonimo bat

	SINONIMOAK	ANTONIMOAK
IREKI		
IRABAZI		
BUKATU		
HITZ EGIN		
HARTU		
MEHETU		